

Patenteak askatu

Koldo Sagasti

Apenas nabarmendu gabe pasatu da iragan astean itzal handiko 170 pertsona baino gehiagok AEBetako presidenteari bidalitako eskari publikoa. Besteak beste, hainbat nazioarteko mandatari ohik eta Nobel saridunek sinatutako manifestuan koronabirusaren aurkako txertoen patenteak aldi baterako ezerezean utz ditzala eskatzen zaio agintari estatubatuarrari. Ekimenaren bultzatzaileen esanetan, izurriteak dirauen bitartean txertoaren gaineko jabetza intelektualerako eskubideak indargabe-tzeak edozein herrialdek sendagaiak ekoitzi eta populazioa modu masiboan txertatzea ahalbidetuko luke, eta ho-

rrek zorigaiztoko pandemiaren amaiera ekarriko lukeen talde immunizazioa bermatuko luke. Horixe litzateke, orain arte hartutako beste neurri guztiek kale egin dutenean, amesgaizto honi amaiera emateko bidea.

Baina gizateria osoaren ongizateak kapitalarekin egin du talka. Izan ere, logika kapitalistaren baitan baino ezin da ulertu, mundu osoa kolpatzen ari den larrialdi sanitario batean murgilduta gaudelarik, izurri horren balizko sendabidea interes ekonomiko gutxi batzuek bahituta edukitzea.

Jakinduria unibertsala ezagutzaren partekatzeaz elikatu da historian zehar. Ezaguera elkarbanatuz egin du aurrera

zibilizazioak, eta horrelaxe iritsi da gizateria gaur egungo garapen mailara. Baina gupidarik gabeko gutxi batzuen etekin ekonomikoa bizitzaren aurrean lehenesten denean, ezagutu dugun zibilizazioaren gainbehera baino ezin dugu espero.

Momentu historiko baten aurrean gaude. Bestelako neurri guztiek alferrikakoak izan direla erakutsi dute, datu guztien arabera. Txertoen patenteetan esku-hartzeak besterik ez gaitu salbatuko, beste guztia adabakiak jartzea eta distopia hau betikotzea da. Hori egiteko eskumenaz gain kapitalaren aurrean bizitza jartzeko adorea duen norbait behar dugu. Ausarten garaia da. •

Ez dakit

Amagoia Mujika
Telleria

Hauk galdera zorrotzak eta erantzun burutsuak botatzeko gaitasun ikaragarria daukate. Batzuetan ahaztu egiten zait noizbait denok izan ginela derrigor ume, batez ere heldu batzuen joerak ikusita. Baina, tira, haurrak izaki zoragarriak izan ohi dira horrela izaten uzten zaien bitartean.

Gure seme-alabak galdera konplikatuak egiten hasi zirenean aztoratzen hasi nintzen. Izan ere, ez nekizkien erantzun zuzen guztiak eta «ez dakit» esatea kostatu egiten da «guraso perfektuen liga» bihurtu den garaiotan. Horregatik, ez dut inoiz behar adina eskertuko alaba txikia zenean izan zuen irakasle bikain

batek emandako aholkua: «Ez dakizunean zer erantzun, horixe esan lasai, ez dakizula oso ondo zer erantzun eta uzteko denbora pixka bat galderaren inguruan pentsatzeko. Esan erantzungo diozula geroxeago edo bihar edo... ». Nola? Hori egin daitekeela? Komodin hori existitzen dela? Ederki.

Komodinari gustua hartu eta haurrekin ez ezik, helduekin ere erabiltzen dut. Izan ere, gai guztiei buruz iritzi edo jarrerara jantzia eta koherentea izatea ez da gauza samurra. «Eta zuk zer uste duzu honi edo hari buruz?». Ederra lasaitua «horri buruz ez daukat iritzirik» esan ahal izatea. Batzuetan gerta daiteke «oraindik» ez izatea iritzirik, gaia ez du-

dalako behar adina kontrolatzen. Edo izan daiteke ez izatea iritzirik ez zaidalako interesatzen eta, zer demontre, neket-sua delako denari buruzko iritzia izatea.

Akaso nire ahultasun horregatik –gai guztien inguruko iritzi interesgarriak eta defendagarriak izateko ezintasunagatik– asko miresten ditut beti-beti-beti eta den-den-denari buruz iritzia duten pertsonak. Sare sozialetan suelto-suelto dabilta.

Tira, egia esan, ez dakit mirestu egiten ditudan, nekatu egiten nauten edo ikara ematen didaten. Oraindik ez daukat garbi, emadazue denbora pixka bat pentsatzeko. •